

Azaroaren 10eko 5/1998 FORU ARAUA, telekomunikazioetako operadoreek udal zergak ordaintzeari buruzkoa.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua. Aplikazio eremua.....	2
2. artikulua. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzea.....	3
3. artikulua. Udal mailako gainerako tributu eta prezio publikoen tributazioa.....	3
4. artikulua. Konpentsazioa.....	3
XEDAPEN gehigarriak.....	3
Lehena.....	3
Bigarrena.....	4
Lehena.....	4
Bigarrena.....	4
AMAIERAKO XEDAPENAK.....	4
Lehena.....	4
Bigarrena.....	4

HITZAURREA

Irailaren 22ko 52/1987 Foru Dekretuak, Espainiako Konpainia Telefoniko Nazionalaren tributazioari buruzkoak (azaroaren 24ko 17/1987 Foru Arauaren bidez konbalidatua), berariazko zerga erregimena onartu zuen aipatu konpainiarentzat, landalurren kontribuzioari eta hirilurren kontribuzioari dagokienean (gaur egun Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga). Berezitasun hori zela medio zerga horien ordainarazpenetik ateratzen ziren zerga zorren ordean urteko diruzko konpentsazioa ezarri zen.

Geroago, 52/1987 Foru Dekretua aldatu egin zen Gipuzkoako Udal Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren bidez. Konpentsazio erregimenari lotutako zerga kontzeptuen artean, udal esparruko prezio publikoak sartu ziren.

Azken urteetan onartutako araudian (Telekomunikazioak liberatzeko apirilaren 24ko 12/1997 Legea, eta Telekomunikazioei buruzko apirilaren 24ko 11/1998 Lege Orokorra) konkurrentzia librearen printzipioa finkatu da telekomunikazioen sektorean. Horrek berarekin ekarri du telekomunikazioen merkatuan Espainiako Konpainia Telefoniko Nazionalaz (gaur egun Espainiako Telefonika SA) bestelako operadoreak agertzea.

Espainiako Konpainia Telefoniko Nazionalari aplikagarria zaion udal zerga eremuan zerga erregimen bat onartzeko arrazoiak, izan ere, arrazoi berberak dira erregimen hori telekomunikazioen merkatuan gaur egun dauden edo geroago finkatuko diren telekomunikazioetako operadoreengana zabaltzeko. Beraz, udal zergen erregimen hori finkatzeko araua onartu behar da.

1. artikulua. Aplikazio eremua.¹

Foru arau honetan xedatutakoa zerbitzu publikoko obligazioak exijigarriak zaizkien operadoreei aplikatuko zaie, Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra jasotakoaren arabera.

Foru arau honen xedapenak Espainiako barne antolamendua osatzen duten nazioarteko itun eta hitzarmenetan jasotakoa eragotzi gabe aplikatuko dira.

¹ 1 artikulua hau Zergei buruzkoa zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAREN III kapituluko 12. artikulua aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.

2. artikulua. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzea.

Aurreko 1. artikuluan aipatutako telekomunikazioetako operadoreek uztailearen 5eko 12/1989 Foru Arauak eta hori garatzeko xedapenak jasotakoaren arabera ordainduko dute Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

3. artikulua. Udal mailako gainerako tributu eta prezio publikoen tributazioa.²

Aurreko 1. artikuluan aipatutako telekomunikazioetako operadoreak udal mailako gainerako tributu eta prezio publikoei lotuta badaude ere, horien ordainarazpena dela-eta izan ditzaketen zerga zorren ordezturteko konpentsazio bat finkatuko da.

Apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifetako lehen sekzioan jasotzen duen 761.2 epigrafeak (Telefonia mugikorren zerbitzuak) aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen da zerga ordaintzeari dagokionez.

4. artikulua. Konpentsazioa.

1. Aurreko 3. artikuluan aipatutako konpentsazioa udalerrin bakoitzean lortutako fakturaziotik eratorritako sarreraren gordinen 100eko 2koa izango da.

2. Honelaxe banatuko da konpentsazioa:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiari: 100eko 0,1.

b) Udal bakoitzari, udalerrin bakoitzean lortutako fakturaziotik eratorritako sarreraren gordinen proportzioan: 100eko 1,9.

Ondorio horietarako, udalerrin bakoitzean lortutaz hartuko dira Gipuzkoako udalerrin bakoitzeko abonatu eta erabiltzaileei emandako edozein zerbitzuren gatik sortzen diren sarrerak, nondik fakturazten den kontuan hartu gabe. Irizpide hori Foru Aldundiarentzako konpentsazioa kalkulatzeko ere erabiliko da.

3. Erregelamenduz finkatutako moduan eta epeetan ordainduko da konpentsazioa.

XEDAPEN gehigarriak

Lehena.

² 3. artikulua hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAREN laugarren xedapen gehigarriak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. Hala ere, Foru Araua honen lehen amaierako xedapenak dioen moduan, artikulua honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.(GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

Udalerriz kanpoko eremuko udal entitateek foru arau honetako 3. artikuluan ezarritakoaren arabera eskubidez jaso dezaketen konpentsazioa sartuz hartuko da 1. artikuluan aipatutako operadoreek udalerriz kanpoko entitateak osatzen dituzten edo horietan parte hartzen duten udal entitateei ordaintzen dieten konpentsazioan.

Bigarrena.

Foru arau honetako 3. artikuluan xedatutakoak zuzenean ondorioak izango ditu Gipuzkoa osoan eta udal entitate guztiei dagokienean, entitate horiek inolako erabakirik hartu beharrik gabe eta ordenantza fiskalik onartu beharrik gabe.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru arau hau indarrean jarri aurretik foru arau honetako 3. artikuluan aipatutako udal zerga eta prezio publikoengatik sortutako zerga zorrak, izan ere, artikuluan berean zehaztutako konpentsazioaren konturako ordainketaren izaera izango dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lehena.

Foru arau hau indarrean jartzean indargabetuta geratuko dira Espainiako Konpainia Telefoniko Nazionalaren tributazioari buruzko abenduaren 22ko 52/1987 Foru Dekretuko xedapen guztiak, bertako 2. artikuluan xedatutakoa salbuetsita.

Bigarrena.

Foru arau honetan jasotako erregelamenduzko garapenaren indarrez ematen den araudia indarrean jarri bitartean, indarrean jarraituko du otsailaren 14ko 9/1989 Foru Dekretuak, Espainiako Konpainia Telefoniko Nazionalaren tributazioari buruzko abenduaren 22ko 52/1987 Foru Dekretua zati batean garatzen duenak, foru arau honetan jasotakoaren aurka ez doan zatian.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena.

Diputatu Kontseiluari baimena ematen zaio foru arau hau garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUA, toki entitateen zerga sistema aldatzen duena. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).*
 - Bere Laugarren Xedapen Gehigarriak 3. artikulua aldatu du.
- *Zergei buruzkoa zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).*
 - Bere 12. artikulua 1. artikulua aldatu du.